

B

BARREN

TOKIKOM

Miskiren azken bidaiia



MATRIKULALDIA ZABALIK

Izena emateko epea
otsailaren 13ra arte.

Etor zaitez eta informazio
guztia emango dizugu.

**UDAL
EUSKALTEGIAK**
Ikasturteakurso **14/15**



Kalebarren plaza, 2
Tel.: 943 742 731
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

Euskaraz blai

Empápate de Euskera



MGS

Aseguruak

Kalikatatea eta Zerbitzuan Finkatua
ZU ETA ZURE FAMILIAREN LASAITASUNERAKO ASEGURUAK

GAIZKA CASAREJOS CRUZ

Jausoro plaza 1 · 20870 Elgoibar

T/ 943 742 699

gaizkacasarejosacruz@mgs.es

Aseguru Agente eskusiboak CO7944173474L

FLORA MARÍA MUGUERZA CORTABERRIA izan da urtero
bezeroen artean zozketatzen den telebistaren aurtego irabazlea

ASEGURU MOTA GUZTIAK

- Auto eta etxe aseguruak
- Istripu aseguruak
- Istripu errentarekin
- Gaixotasun aseguruak
- Aurretze eta jubilazio planak
- Bizitza aseguruak
- Diru inbertsioak
- * Inverseguro (kapital ziurtatuarekin)
- * PPA desgrabatzeko eta kapital ziurtatua



www.mgs.es



Ander Izagirre

Jada egun batzuk pasa diren arren, urte berri on, Inma!

Urte berriarekin batera, ohikoa izaten da asmo berriak izatea. Zure kasuan, Inma, egin al diozu sekula horrelako promesik zure buruari? Nik ez daukat batere akorduan, baina gaurkoan aukera egokia iruditu zait antzerako ariketa bat egitea. Zergatik ez dugu orain arte idatzi ditugun gaien errepaso txiki bat egiten eta aurrera begirako nahiak azaltzen?

Gogoan daukat, lehen aurkezpen idatziaren ostean, *fracking*-aren kontuarekin ekin geniola gure bideari, eta zoritxarrez, oraindik martxan dagoen plan bat izaten jarraitzen du. Kalte nabarmenak ikusita, lortuko ote da *fracking*-a behingoz gelditzea?

“Kalte nabarmenak ikusita, lortuko ote da ‘fracking’-a behingoz gelditzea?”

Erreken kutsadura ere izan genuen hizpide, Deba ibaian hilda azalduko arrainak eta Sallobente erreka isuriak zirela medio. Ez genuen erantzukizunen berririk izan, baina gutxienez, ez dugu kasu berririk izan. Noiz arte?

Azken idatzian zabortegien inguruan jardun genuen. Bolo-bolo jarraitzen du gai honek eta prentsan behin eta berriz ematen dira zabortegien inguruko berriak. Bakoitzak bere nahietara moldatutako berriak noski! 2015ean zehar, zer esan asko emango digun gaia izango denaren zalantzarik ez izan.

Horiez gain, izan ditugu beste hainbat kontu ere. Eta gai bakoitzarekin, gure iritziarekin ados egon edo ez, jendeak gauzak ikasi dituenaren susmoa dudala esango nuke. Hori transmititu izan didate behintzat, testu bat argitaratu ostean kalean zerbait komentatu didatenek.

Zuk, Inma, zer azpimarratuko zenuke orain arte idatzitakoaz? Eta urte berriari begira, ingurumenarekin loturiko zer nahi, beldur, zalantza... aipatuko zenituzke?



Inma Mugertza

Baita zuri ere, Ander; urte berri on, lagun!

Bai, Ander. Hamaika promes egin izan dizkiot, baina orain gutxi arte ia guztiak asmotan geratu izan zaizkit. Adinak erakutsi dit asmo eta gogoekin estuegia ez izaten, horregatik azken urteotan promes apalagoak egin eta betetzea lortu ditut. Orain arte idatzi dugunari begiratuta eta etorkizuneko nahiei buruz, kontua nabarmen zailtzen da, erabakiak eta emaitzak beste batzuren menpe daude eta.

Fracking-a gelditzea lortuko den itxaropena daukat. Kostu ekonomikoak eta kalteak gero eta argiagoak dira, gizartearen kontrako jarrera argia izateaz gain hedatzen doa, eta gero eta gehiago dira burugabekeri hutsa dela esaten duten aditu eta zientzialariak.

Beste alde batetik, arrazoi duzu: erreken kutsaduraren erantzukizunen berririk ez genuen izan, baina antzeko kasurik ez da errepikatatu. Berriz gertatzekotan, ordea, erantzukizunak berdina izango direlakoan nago; hau da, bat bera ere ez. Horrek kezkatu behar gaitu Nola da posible delitu ekologiko baten erantzulea zein den ezagutu ez edo ezagututa ere, nor den ezkutatzea, edo/eta egin duen kaltea ordaintzera ez behartzea?

“‘Fracking’-a gelditzea lortuko den itxaropena daukat”

Bai, ziur egon 2015ean zehar zabortegien inguruko hitz asko esan eta idatziko direla, baina beste gai askori buruz ere bai. Leihonetatik gure ildoan jarraituko dugu norberak bere irizpideekin bat datozen iritzia ematen eta, bide batez, jendeak zerbait ikasten bado ezin hobeto, ezta Ander?

Zerbait aipatzekotan, irakurleen harrera eta iruzkinak. Ingurumenarekin loturiko kezka nagusia: gure sistema ekonomikoaren oinarriak eta ingurumenaren babesa bateragarriak ba ote diren.

ESKERTZA

BLANKI GARITAGOITIA GURRUTXAGA



2015eko urtarrilaren 11n hil zen, 63 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiari lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikun.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

ARGITARATZAILEAK:



ELGOIBARKO IZARRA

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen **IRITZIA** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Lotsagarria

Harrituta eta suminduta ikusi dut aurtengo Gabonetarako Elgoibarren antolatutako “ospakizunetako” bat 550 kiloko harriari tiraka aritu diren gazte koadrila baten eta asto baten arteko desafioa izan dela.

Hitz batean amorragarria iruditu zait. Zer kulpa du asto koitaduak (lau hankakoaz ari naiz) horrenbeste sufriarazi diezaioten, zer eta besterik gabe apustu bat irabazteko? Esango didate astoak ez duela sufritzen, ondo zaintzen dutela, beti egin den zerbait dela etabar. Horrelako ospakizun triste eta lotsagarriak ez dagozkio jendarte “zibilizatu” bati. Badakit alferrik izango dela, baina ez nuke nahi nire iritzia emateko aukera galdu, eta ezta horrelako ekintzak gure “kulturaren” parte bailiran ospatzen jarraitzen dugun heinean, oker gabiltzala esateko aukera galdu.

15348693-B C

Eskerrik asko

Gure ama Blankiren gaixotasuna zela eta, azken bi urteotan, harreman estua eduki dugu Mendakoko Ospitaleko etxeko ospitalizazio-zerbitzuko eta Elgoibarko anbulatorioko sendagile, erizain eta gainerako langileekin. Eskerri oneko hitzak baino ez dauzkagu bi erakunde horietako gizon eta emakumeentzat. Eskerrik asko denoi beraz, beti agertu diguzuen profesionaltasunagatik, gizatasunagatik eta ardura handiagatik.

Estibaritz Astarloa familia C

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: “Ikastolako irakasleak”, esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelera datorren eskutitzik argitaratuko.



Merkatu plaza atzeko bidea zikinkeriaz beteta zegoen astelehen goizean:

“Jendeak ez du ezer errespetatzen. Zapatu arratsaldean gazte asko egoten da Pilar azpiko tunel inguruan edaten eta erretzen, eta gero ingurune guztia zikin-zikin lagatzen dute. Astelehen goizean alkohol botilak eta freskagarrien latak oraindik merkatu plaza atzeko zubi zaharrean botata zeuden. Ingurunea errespetatzeko eskatu nahi diet gazte horiei, herri txiki honetan denok bizi behar dugu-eta”.



Urazanditik Maalako errotondara jaisteko bidegurutzea arriskutsua da: “Urazandi auzora autoz igotzen ari zarela, eskumara hartuz Maalako errotondara jaisteko aukera dago, baina bidegurutze horretan aldapa gehiegi dago, eta auto gidariak ez du ondo ikusten aldaparen ostean zer dagoen. Bi zebra bide daude hor bata bestearen ondoan, eta gidariak poliki joaten badira ere, arriskua sortzen da. Gune horretan zerbait egin beharoko litzateke”.



Zuen kezak, galderek edo txaloak bidaltzeko:
barrene@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

GUSTATZEN JATA, GUSTATZEN JAKU...



elgoibarko herri eskola

ETA GUSTATUKO JATZU

Joseba Zinkunegi eta auzi berean auzipetutakoei eta 'Mate' operazioan atxilotutako lagunei babesa agertu diete

Libre Eguna antolatu dute bihar zortzirako Elgoibarren, 'Elkartasunetik konpromisora' lelopean

Astelehenean zuten hastekoa Madrilen Joseba Zinkunegi eta sumario berean auzipetutako ezker abertzaleko beste 34 lagunren kontrako epaiketa, baina goiz horretan bertan, Guardia Zibilak hamasei lagun atxilotu zituen ETari laguntzea eta ogasunari iruzurra egitea leporatuta, tartean Madrilen epaitu behar zituztenen abokatuak, eta ondorioz, auzipetuek eurek epaiketa eteteko eskatu zuten. Eskaria egin eta gutxira jakinarazi zuten epaitegiko iturriek epaiketa bertan behera geldituko zela, harik eta goiz horretan atxilotutako abokatuekin zer egin erabaki arte. (Atxilotuak aske daude dagoeneko). Egoera horren aurrean, Euskal Herriko hainbat herritan mobilizatzea deitu zuten arratsalderako, eta Elgoibarren ere elkarretaratzea egin zuten *Epaiketa politiko gehiago ez! Zinku Libre* lelopean. 07/08 sumarioak 2007ko urrian Espainiako Poliziak Seguran Batasunaren kontra hasitako operazioan du



jatorria. Batasuneko 23 kide atxilotu zituzten orduan, baina operazio hark segida izan zuen gero. Joseba Zinkunegi, esaterako, 2008ko otsailaren 11n atxilotu zuten Batasuna, EHAK eta EAE-ANVko beste hamahiru lagunekin batera, eta 50.000 euroko bermea ordainduta 2010eko otsailean laga zuten libre, politikan jarduteko debekuekin.

Mobilizazioak eta Libre eguna

Asteleheneko polizia operazioaren ondotik, manifestazioa antolatu dute biharko Donostian, eta hara joateko autobusa anto-

lau dute Elgoibarren. King-Kongeko autobus geltokitik irtengo da, 16:00etan, eta Jai Alain eta Iturri tabernetan eman beharko da izena.

Bestalde, Libre Eguna ere antolatu dute hilaren 24rako. 13:00etan taldeko argazkia aterako dute, eta ondoren bertso-bazkaria egingo dute Leku-Ederren, Unai Gaztelumendi eta Nerea Ibarzabalekin. Bazkaritarako txartelak Iturri, Lanbroa eta Tantan jarri dituzte salgai. Gauean, 23:00etatik aurrera, Xero Xiette eta Skaleak taldeen kontzertuak izango dira Gaztetxean. Egun horretan laranz jantzita irteteko eskatu dute.

Industria eta hezkuntza arloko buruekin bildu da Markel Olano



Elgoibarko hainbat enpresetako eta lanbide heziketako bi zentroetako ordezkariekin batu ziren joan zen astean EAJko Gipuzkoako ahaldu nagusi izateko hautagai Markel Olano eta Elgoibarko alkategai Ane Beitia. Danobat Group, Goratu, Alcantara, Schaeffer, IMH eta Asmaola bisitatu zituzten, haien beharrak entzun eta etorkizunera begira izan ditzaketen erronkak ezagutzeko. Bertako industria babesten jarraitzeko konpromisoa agertu zuen Olanok.

IMHra eta museora bisita egin du Arantza Quiroga

Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko presidentea Elgoibarren izan zen asteazkenean. Danobat enpresa, IMH institutua eta makina-erremintaren museoa bisitatu zituen, Javi Nuñez Elgoibarko PPko zinegotziak eta alderdikideak, eta erakunde horietako ordezkariak lagunduta.



‘Elgoibar zainduz’ sortu du Elgoibarko Udalak, Udalari kaleko intzidentzien berri emateko zerbitzu digitala

Sakelako telefonorako doako aplikazio baten bidez emango du herritarrak intzidentzien berri

Hil honetan bertan jarriko du erabilgarri Elgoibarko Udalak *Elgoibar zainduz* izeneko zerbitzu berria. Sakelako telefonorako aplikazio bat da berez, eta haren bidez, kaleko intzidentzien berri eman ahal izango du herritarrak. Horrez gain, ingurumen arloko kontsultak ere egin ahal izango ditu, app horren bidez. Zerbitzu hau Elgoibarko Udalaren webgunean egongo da ikusgai: www.elgoibar.eus.

Interesatuak, lehenengo eta behin, sakelako telefonoko Play Store edo APP Store webguneetan sartu beharko dira, gailu mugikorrean duten teknologiaren arabera (Android/iOS). Han, Linea Verde izeneko aplikazioa deskargatu beharko dute. Aplikazioa telefonoan zabaldu ondoren, erabiltzaileak galderaren bat egin edo intzidentziaren baten berri eman ahal izango du. Intzidentzia baten berri emateko, nahikoa da kategoria aukeratzea. Ge-

olokalizazio bidez, aplikazioak automatikoki jakingo du intzidentzia hori zein koordinatutan gertatu den. Hala ere, eskuz ere egin ahal izango da, abisua beste uneren batean eta beste lekuren batetik bidali nahi den kasuetan. Intzidentzia hori zuzenean jasoko du Udalak zeregin horretarako daukan arduradunak, eta bidaltzaileak intzidentzia behar zen lekura iritsi denaren jakinarazpena jasoko du. Informazio gehiagorako: 943 741 050

Txerri-potea antolatu dute Elgoibarko zenbait ostalarik biharko

San Anton eguna da bihar, eta horren harira, Elgoibarko ostalari talde batek txerri-pote izeneko ekimena antolatu du biharko. Maalako parkean txerri bat erretzea zuten hasierako nahia, baina Maalako parkea estaltzeko obrak atzeratu direla eta, txerri-potea antolatzea erabaki dute. Txerri okelarekin egindako pintxoak prestatuko dituzte tabernetan, eta edanarekin batera 2,50 euroan eskainiko dituzte. Lanbroa, Pilon, Maala, Iriondo, Txarriduna, Malape, Ilunpe, Kaia, King Kong, Sallento, Urkiola, Orbea eta Gabi taberna eta jatetxeek parte hartu dute ekimenean.

Sigma auzoa Olasoko industrigunearekin lotzen duen zubia zabalik da ostiralaz geroztik



Ostiral arratsaldean zabaldu zuten Olaso industrigunea eta Sigma auzoa baten dituen oinezkoentzako pasabidea. Hirigintza Saitetik jakinarazi dute hamaazpi metro dituela pasabidea. Irigarritasuna hobetzeko, igogailua ere jarri diote ondoan, Olasoko aldean. Elgoibarko Udalak 178.810 euro inbertituko ditu obra hori egiten.

Zozketak

Sanlo eskubaloi klubaren Gabonetako loteria

Kirol Taldeak jakinarazi du Gabonetako loteriaren zenbakian botatakoa jasotzea egokitu dela. Saria klubak Olaizagan duen bulegoan kobratu ahal izango da, martxoaren 25a bitartean, asteazkenetan 19:15etik 20:30era.

Gabonetako loteria

Katxalin elkartearen Gabonetako loterian jokatutuenek (89.497 zenbakia) saria dute. Kobratzeko Laboral Kutxara jo behar da.

Txankakuaren zenbaki saridunak

500 euro bonoaren irabazleak : 30.117 (ordezkoa: 45.094) eta 53.341 (ordezkoa: 38.566).
100 euroko bonoaren irabazleak: 73.701 (12.544), 78.123 (35.668), 84.383 (90.261), 04.608 (85.094), 23.733 (33.531), 67.199 (74.494), 30.487 (83.940), 90.464 (36.950).

GEMMA AGIRREGOMEZKORTA

MISKI ELKARTEKO ARDURADUNA

2000. urtean sortu zuen Gemma Agirregomezkortak Miski gobernuz kanpoko erakundea Peruko haurrei laguntzeko, eta hamabost urteko lanaren ostean amaitutzat eman du elkartearen ibilbidea. 63 urte egin ditu Gemmak, eta nolabait esateko, erretiroa hartzeko unea iritsi zaiola erabaki du. Otsailaren 25ean egingo du azken bidaia Cuscora, hango bizilagunei agur esateko. Pena handiz, baina aldi berean, egindakoaz harro dagoela adierazi du elgoibartarrak.

Hamabost urte eta gero, Miskiren jarduna etetea erabaki duzu. Zein izan da erabaki hori hartzeko arrazoia?

Arrazoi bat baino gehiago izan dira erabaki hori hartzera eraman nautenak. Batetik, Peruko haurrei laguntzeko egiten ditugun kanpainak ez dira bideragarriak. Kalean gero eta errifa gutxiago saltzen dira, eta haurrak babesean hartzen dituztenen kopuruak ere azken urteotan behera egin du. Krisiaren eraginez Elgoibarren jende asko lanik gabe geratu da, eta Miskik ere igarri du. Beste alde batetik, nire osasun egoera dago. Gabonetan 63 urte egin nituen, eta uste dut jubilatzeke garaia iritsi zaidala. Hemendik aurrera apur bat lasaiago bizitzeko eskubidea badaukadala pentsatzen dut.

Kostata hartutako erabakia izango zen, seguruenik, ezta?

Bai, horrelako erabakia hartzea ez da erraza. lazko maiatzaren 2an itzuli ginen Cuscotik, eta bueltako hegaldian konortea galduta nahiko larri pasatu nuen. Nire burua gehiago zaindu behar nuela pentsatu nuen une hartan, eta gero, kanpaina berriz martxan jarri genuenean, argi ikusi genuen gauzak ez zihoazela ondo. Azken urteetan Elgoibarren



“Hamabost urteotan egindakoaz harro nago”

jendea gero eta tristeago ikusten da. Ordu asko eta asko pasatu ditut kalean, eta esponja bat bezala xurgatu dut kalean gertatutako dena. Jendeak, gainera, bere arazoak ere kontatu izan dizkit, eta egoera horretan

Miskiren proiektua aurrera eramatea ez da bideragarria.

Otsailan, beraz, zure azken bidaia egingo duzu Cuscora. Zer sentitzen duzu?

Miskiren jarduera behar den bezala buka-

tzea da nire nahia, eta, besteak beste, horretarako aprobetxatuko dut azken bidaia hau. Cuscon elkarte asko ari dira lanean, eta ume batzuk beste elkarte batzuetara bideratuko ditugu. Gauza guztiak lotuta utzi nahi ditugu. Horrez gain, hango lagunei behar den bezala esan nahi diet agur. Erabakia hartu nuenean ez nuen uste une hau hain zaila izango zenik, gauzak oso argi nituelako eta hartutako erabakiarekin seguru nengoelako, baina eguna iritsi ahala tristura handia sentitzen dut barruan. Gabonen aurretik lkastolako umeekin egin nuen solasalditxo bat, eta nire bidaietako argazkiak ikustean lur jota sentitu nintzen. Momentu txarra izan zen, baina azkenean lortu nuen negarrari eustea. Horregatik erabaki dut Elgoibartik kanpoko komunikabideetan ez irtetea. BARRENI baietz esan diot, herrikoa delako, baina irrati eta telebistatik ere deitu didate, eta ezetz erantzun diet, oso triste nagoelako.

Zein izan da hamabost urte hauetan egin duzuen lanik garrantzitsuena?

Umeen eskolatzean zentratu gara batez ere, eta lan horri esker ume eta gazte askok bukatu dituzte euren ikasketak. Ez daukat zerrenda zehatza, baina izango dira hamabi bat sendagile, hogeitabat abokatu eta 80 bat ingeniari. Alde horretatik oso harro sentitzen naiz hamabost urte hauetan egindako lanaz.

Nola gogoratzen duzu Miskiren sorrera?

Perura joan baino lehen, Cuban eta beste hainbat herrialdetan izan nintzen, eta hemengo botiketean eskatutako produktuak banatzen nituen. Baina ume-umetatik Peru eta Bolivia ezagutzea zen nire ametsa. Familiakoek esaten zidaten herrialde horiek ez zeudela ezinduentzako prestatuta, eta hobe zela ez joatea esaten zidaten. Baina 2000. urtean, momentua hura zela erabaki nuen, bestela lurralde horiek ezagutu gabe hilko nintzelako. Familiakoek baietza eman zidaten orduan, eta halaxe egin nuen nire estreinako bidaia Perura lagun batekin. Han ikusi nuen egoera oso larria iruditu zitzaidan eta Elgoibarrera itzultzean zerbait egin behar nuela erabaki nuen. Blanca Salegi kultur teknikariarekin hitz egin nuen eta gobernu kanpoko erakunde bat sortzea pentsatu genuen. Udaletxean lagundu zigu-

ten, eta horrela sortu genuen Miski.

Zein izan zen Cuscon egin zenuten lehenengo lana?

Gure lehenengo bidaia hartan ikusi genuen egunero-egunero 500 bat umek bazkaltzen zuten jangela batean ez zegoela altzaririk. Lurrean jaten zuten, eta horixe izan zen nire lehenengo lana. Neure buruari esan nion hurrengo urtean berriz joateko aukera banuen jangela hartarako altzariak erosiko genituela, eta halaxe izan zen. Lehenengo urte hartan ez genuen diru-bilketa kanpainarik egin herrian, baina senideek eta lagunek emandakoarekin joan nintzen Cuscora, eta lortu genuen jangelarako altzariak erostea.

Dagoeneko ohituko ziren, baina hasieran nola hartu zuten Cuscon haiei laguntzera zihioanak berak ere laguntza behar zuela ikustea?

Berehala ohitu ziren. Elgoibar negutegia egin genuenean hango komunitateko presidenteak esan zuen: "Gemma andereñoa gu bezala ibili ez arren, gu baino urrunago iristen da". Eta hitz horiek bihotzean sartuta geratu zaizkit betirako. Egia da toki askotan harritu egiten direla per-

tsona bat gurpildun aulkian ikustean. Anaiarekin Japonera egin nuen bidaian esaterako, Tokion ohituta zeuden, baina hango herri txikietan harrিতa begiratzen zidaten. Jaungoikoari eskerrak, gurpildun aulkian egon arren ez naiz etxean sartuta egon, eta hemendik aurrera ere, osasunak laguntzen badit, berdin jarraituko dut.

Elgoibarren izena urrutira eraman duzu.

Bai, oso urrutira, eta zenbat aldiz esan ote dudan han *Aupa Elgoibar!* la bost mila metroko alturan eraiki genuen negutegiari ere Elgoibar izena jarri genion!. Azken urteetan ez du lehenengo funtzioa betetzen negutegiak, baina oraindik ematen ditu produktu gutxi batzuk. Hasieran alor desberdinak landu genituen, baina Miski azken urteetan hezkuntzan zentratu da; guretzako hango umei ikasketak egiten laguntzea izan da garrantzitsuena.

Elgoibar herri solidarioa dela esango zenuke?

Bai, elgoibartarrak oso ondo portatu dira. Azken batean Elgoibar herri txikia da, eta asko eman du. Inguruko herri batzuetatik ere jaso dugu laguntza; Mutrikun esaterako babesean hartutako ume asko ditugu,



eta Getariko Udalak ere eman izan dizki-
gu diru-laguntzak, baina elgoibartarrek
emandako laguntza izan da garrantzi-
tsuena. Hala ere, denetik dago, eta ba-
tzuk ez daude konforme dirua hain urruti-
ra bidaltzarekin, hemen ere beharra
ikusten dutelako. Eta arrazoi pixkat ere
badutela esango nuke, ez pentsa. Jende
askok zalantzak izaten ditu gobernu-
z kanpoko erakundeei emandako diruare-
kin zer egiten den, baina zalantza horiek
ez bagenitu gaudituko, mundua ez litza-
teke mugituko. Ezin gara egon Gober-
nuek zerbait egiteko zain, azken batean,
bizilagun arruntak garelako mundua mu-
gitzen dugunak. Nik dirua zuzen-zuzene-
an eramaten nuen Cuscora, inolako bitar-
tekaririk gabe, eta nirekin Cuscora etorri
izan diren elgoibartarrek egiaztatu ahal
izan han egin dugun guztia. Ahal dugun
neurrian beharra duenari laguntzea da
garrantzitsuena, eta bakoitzak aukeratu
behar du non lagundu. Normalean, kan-
poan laguntzen dugunok hemen lagun-
tzeko ere prest egoten gara. Sentsibilita-
tea izan behar da, bai kanpokoekiko eta
baita bertakoekiko ere.

**Hamabost urteko lanaren ondoren, nola
ikusten duzu Cusco gaur egun?**

Pixkat hobeto ikusten dut, baina ez pen-
tsa ondo dagoenik. Herrialde gehienetan
bezala, han ere Gobernuak esaten du
egoera gero eta hobea dela, baina hobe-
kuntza horiek kalean ez dira nabaritzen.
Baina azken urteetan jendea hobeto jan-
tzieta ikusi izan dut, eta aldaketa batzuk
igarri ditut. Hezkuntzan ere egoera hobe-
tu da apurtxo bat, baina oraindik hobe-
tzeko asko dago.

**Krisiaren eraginez elgoibartarrak tristeago
ikusi dituzula aipatu duzu. Cuscon hemen
baino askoz gutxiagorekin bizi dira, or-
dea. Gizarte aurreratua esaten diogun ho-
netan, ba al dakigu daukagunarekin pozik
bizitzen?**

Ez. Hura beste mundu bat da. Oso gutxi
daukate, baina pozik bizi dira, ez dute irri-
barrea inoiz galtzen. Eta hemen ez dakigu
daukaguna baloratzen. Jaungoikoari es-
ker etxea ordainduta daukat, eta egunero
jaten dut, eta ondo gainera. Orduan ahal
dudan heinean Caritasi edo bestelako el-
karteei laguntzen diet. Orain ohitu naiz,



baina hasieran Perutik hona etorri eta itu-
rria zabaltzean ur beroa irtetzen zela ikus-
tean eskerrak ematen nituen. Izugarria
da. Edo apur bat zorabiatuta sentitzen
naizenean osasun zentrora deitu eta an-
bulantzia bidaltzen didatenean pribilegiatu
bat sentitzen naiz. Cuscon ume bat hil zi-
tzaidan besoetan, ordaindu ezean ospita-
lean ez gintuztelako hartzen. Eta dirua
baneukan, baina arratsaldera arte bankua
ez zuten irekitzen, eta tarte horretan hil
zen umea. Horrelakoak bizi izan dituzune-
an konturatzen gara hemen zer dauka-
gun. Mundua oso desorekatuta dago, eta
desberdintasun handiak daude.

**Hemendik aurrera nolako izango da zure
bizimodua?**

Ez naiz sekula izan geldirik egoten den ho-
rietakoa, eta seguru aurkituko dudala zere-
ginen bat. Ez da izango urte osoko konpro-
misoa eta eguneroko lana eskatzen didan
zerbait, baina izango dut egiteko zerbait.
Ondo ezagutzen dut nire burua, eta une
honetan pena sentitu arren, aurrera jarrai-
tzeko ilusioz beterik nago. Beharbada ezin-
dua naizelako izango da, baina nire bizitza
beti erronkaz beterik egon da eta beti ozto-
poak gauditzen jardun dut. Horrek eragina
izan du nire izaeran.

Oporretan bada ere, itzuliko zara Perura?

Seguru baietz. Dioni, nirekin bizi den ema-
kumea, hangoa da, eta urtero ezingo gara
joan, baina seguru itzuliko garela bere fami-
lia eta hango bizilagunak bisitatzerako. Dioni

Cuscora egin nuen lehenengo bidaiari eza-
gutu nuen. Bera etortzen zen aireportura
nire bila, eta berak zaintzen ninduen. Han-
dik urte batzutura esan nion ia nahi zuen
hona etorri nirekin bizitzera, eta halaxe eto-
rri zen orain dela bederatzita urte.

Zer esan nahi zenieke elgoibartarrei?

Eskerrak ematea besterik ez zait geratzen.
Kalean orduak eta orduak ematea gogorra
izan da, baina herritarrei esker, eramanga-
rriagoa izan da. Batzuk merkatu plazatik
fruta ekartzen zidaten, beste batzuk etxean
eginiko mermelada, eta hotz egiten zuen
egunetan ere Gabinetik kafetxo bat ekarri
izan didatenak asko izan dira. Gogoratzea-
rekin bakarrik emozionatu egiten naiz. Hori
guztia ez dago ordaintzerik, eta horrek ere
harro sentitzen laguntzen dit. Mila esker he-
rritar guztiei eta umeak babesean hartu di-
tuzten guztiei. Horrez gain, San Lazaroko
lagunek Miskirekin izan duten jarrera ere
eskertu behar dut. Astero egiten zituzten
jolasetatik ateratzen zuten dirua Miskiri
ematen zioten, eta oso detalle polita irudi-
tzen zait. Gainera, Gemma izeneko ume
bat apadrinatu dute. Cuscon Gemma ize-
neko ume pila bat dago, eta euskal izenak
ere asko ugaritu dira. Miskirekin hamabost
urte hauetan bizi izan dudana oso aberatsa
izan da, eta eskerrak eman nahi dizkiet mo-
du batean edo bestean lagundu diguten
guztiei.

Erretratu zaharra



1895

Aste honetako erretratu zaharra Akei baserriko Angelita Gorostidik ekarri du BARRENERA. 1895. urte inguruko erretratua da, eta Angelita beraren birraitona eta haren anai-arreba eta gurasoak ageri dira argazkian. Garai hartan ohikoak izaten ziren mota honetako familia erretratuak ateratzea, eta baserri askotan ikusi izan ditugu horrelakoak. Erretratu honek urte asko ditu. Angelitak berak eman digu informazioa, baina berak ere ez ditu argazkian agertzen diren guztien izenak ezagutzen. Goiko ilaran zutik ageri diren izenak ez dakizki, baina badaki bere birraitona izandakoaren anai-arrebak zirela. Eserita daudenen izenak ondorengoak dira: **Eserita, ezkerretik eskumara:** Pedro Agirre (Angelitaren birraitona), Pedro Jose Agirre Gorrotxategi eta Francisca Garate Arriola senar-emazteak, eta Maria Garate.

ESKERTZA

JESUS MARI ZABALA MENDIZABAL



*Negua hotz goi-eguzki
argi-izpi etsien eguna,
bihotzondo saminduak,
hitzaren ixiltasuna.
Izarren haize bidean
lurrekoen oihartzuna,
eta zurekin doaz
umore eta alaitasuna;*

*zorion iturri zinen,
aitxitxa eta laguna.
Kimu berri bihur dadin
zuk guri eman diguzuna,
saiatuko gara lantzen
zuk ezin egin duzuna:
maitasunak bete beza
utzi diguzun hutsuna.*

2015ko urtarrilaren 9an hil zen, 71 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Iosu Juaristi

Lizarpe Mendi Kluba sortu dute Mendaron bost lagunek, Kilimon Trail babestu eta mendiko lasterketetan lehiatzen direnei bidea errazteko. Iosu Juaristi da presidentea (Elgoibar, 1977) eta Iñigo Lariz, Ioritz Konde eta Ander eta Gotzon Zulaika anaiek osatzen dute zuzendaritza-taldea, baina taldea hazten ari da.

Ainara Argoitia

Zerk bultzatu zaituzte Lizarpe Mendi Kluba sortzera?

Nagusiki, Kilimon Trail lasterketari mendiko lasterketen zirkuito ofizialetan sartu ahal izateko babesa emateko sortu dugu Lizarpe. Euskadiko Kopako edo Euskadiko Txapelketako edo Espainiako zein beste edozein mailatako kopa edo txapelketako proben zirkuito ofizialean sartzeko Kilimon Trailek menditalde baten babesa behar zuen, eta Mendaron ez dagoenez menditaldetik eta ez genituen argi ikusten gure inguruko menditaldeek mendiko lasterketetik zer jarrera duten, geuk elkarrekin propioa sortzea erabaki genuen. Hala, Elgoibarko eta Mendaroko bost lagun batu ginen, beste saltsa batzuetan ere elkarrekin ibilitako bost lagun, eta han hasi ginen paper kontuak lotzen. Arrazoi nagusia hori izan zen, baina aldi berean, ikusten genuen gaur mendian lehiatzen diren gure korrikalariak ere behar zutela babesa eta ondo legokeela haiek ere talde batean batzea, hobeto prestatzeko eta aldi berean egiten ari direnaz taldean gozatzeko.

Beste elkarrekin baten babesean sortu zenezaketan mendiko lasterkarien taldea, baina zure esanetatik ondorioztatzen dut ez zenuela inor konprometitu nahi.

Gertatzen dena da mendiko elkarrekin askotan



“Momentuz, mendiko lasterketetan lehiatzen direnentzat da Lizarpe kluba”

oraindik ez dagoela argi nola jokatu mendiko lasterketen kasuan. Batzuek ez dute arazorik ikusten, beste batzuek ez dute gogoko mendia eta lehia uztartzea, eta beste zenbaitetan ez dago honen inguruan adostasunik, eta

ondorioz, nahiago dute orain arte bezala jarraitu. Ez dago arazorik, baina. Paperak egiten dira elkarrekin sortzeko, eta listo. Ez gara ezer berria asmatzen ari. Baterako zein besterako lanerako prest dagoen jendea dagoen

bitartean, ez dago arazorik.

Mendaroko mendi elkarteak izango da Lizarpe, baina Mendarora mugatuko zarete bazkideak egiteko orduan edo kanpokoei ere zabalduko diezue atea?

Mugatu? Ez, ez. Falta zitzaiguna! Nahi duten guztiak izango dute lekua gurean.

Zuk zeuk esan duzu mendizale elkarteetan batzen diren guztiak ez dutela begi onez ikusten mendia eta lehia binomio hori. Gure inguruan ba al da zuek sortu duzuenaren antzeko ezaugarriak dituen elkarterik?

Ez dira asko, baina Euskal Herrian badira batzuk: Sestaokoa, Idiazabal taldea, Arrolape (Gernikari), Mugalariak (Iruen)... Kirol elkarte baten babesean jaiotako taldeak dira horiek guztiak. Nik garbi daukat taldeko kirolek jende gehiago erakartzen dutela eta hori hein batean izan daitekeela kirola ere taldean errazago egiten delako. Era berean, egia da zenbat eta hobeto ibili, orduan eta bakartia-
go bihurtzen dela kirolaria, *frikiago* alegia, baina ez dezala inork pentsatu kirolak rartzen dituelako denik. Entrenamendu-saioak eta abarrak askoz espezializatuagoak izaten dira, eta horrek ezinbestez egiten du bakartia-
go kirolaria. Gehiengoak, hala ere, nahiago du bost-sei lagun batu, Karakate-Atxolin-Iru-
kurutzeta ibilbidea egin, trago bat hartu eta taldeko sentitu.

Taldearen babesean hazteko aukera handiagoa du hortaz kirolariak zure ustez.

Bai. Kirola egiten hastea bera ere errazagoa da taldean hasiz gero, eta kirolari moduan hazteko taldearen laguntza beti da lagungarria. Identitatearen kontua ere badago. Taldeko sentitzea ere gustatzen zaio kirolariari eta aldi berean gainerako herritarrentzako ere harro egotekoa da kirolariak herriko taldearen izenean ari direla ikustea. Herrian bertan beste talde bat sortzea, edozein dela ere taldea, ona da, zenbat eta aukera gehiago egon hobeto delako denentzat.

Zein fasetan zaudete orain?

Mendi taldea sortuta dago. Paper guztiak bete ditugu –eta ez dira gutxi– eta erregistratu gaituzte. Federatu txartelak tramitatzeko eskumena eman digute. Oraintxe bertan deitu didate jakinarazteko. Momentuz, baina, mendiko lasterketetan aritzen direnentzako

taldea izango da Lizarpe. Gu ez gara hasiko, adibidez, Morkaikok, Burumendik edo gure inguruko beste mendizale elkarte batzuek antolatzen dituzten ekintzak antolatzen: direla irteerak, mendiari edo mendizaletasunari buruzko hitzaldi eta zikloak... Mendiko lasterketetan lehiatu nahi direnei bidea errazteko sortu dugu elkarteak, eta hala, inguruko lasterketen egutegiaren berri emango diegu, saiaturako gara probetarako joan-etorriak lotzen ahal den neurrian bidaiak elkarrekin egiteko, nor bere autoan joan beharrean, federatu txartelak tramitatu dizkiegu... Gauza jakina da mendian korrika egiteko ez dagoela federatuta egon beharrik, baina Euskadiko edo Espainiako kopa edo txapelketen lehiari sartzeko, bai. Hau da, parte hartu zenezake federatuta egon gabe, baina irabazita ere ez duzu saria eskuratzetik izango, horretarako federatuta egotea eskatzen baitute.

“Kirolari gisa hazteko, taldearen babesa beti da lagungarria”

Eta? Interesik agertu al dute gure bueltako korrikalariak?

Bai. Egia esan paper guztiak eskuan hartu arte ez dugu gehiegi zabaldu kontua, baina hogeit bat lagun inguru batu zaizkigu dagoeneko, denak ere Lizarpe izateko gogoz.

Ekipamendua ere beharko du taldeak. Zer asmo duzue?

Bai. Dena den, kontu bat: datorren asteburuan mendi trabesiako Espainiako Txapelketa jokatu da, eta ostegunean, hilaren 14an [atzo], bukatzen da berez izena emateko epea, eta guk gaur, hilak 12, jaso ditugu federatu ahal izateko kode eta abarrak. Beraz, materiala izango du, bai, Lizarpek, baina au-

rriagoko kontuak ditugu orain. Dena den, diseinua egin dago eta arropak prest izan bezain laster jarriko ditugu salgai.

Arrolape, Mugalariak... aipatu dituzu. Harremanik baduzue zuen izaera bereko beste taldeekin?

Bai, bai, jakina. Mundu honetan denok ezagutzen dugu elkar, eta elkarrengandik eta elkarrekin ari gara ikasten. Hemen dena dago asmatuta, eta funtzionatzen duena ahal den ondoen kopiatzea besterik ez dago.

Epe motzera zeintzuk helburu dituzue?

Euskal Herrian taldeka lehiatzea eta gutxienez podiuma egitea, gure bueltan mendian lasterketa ari direnak asko eta maila handikoak direlako. Debabarrenean, esate baterako, hogeita hamar lagunetik gora ibiliko dira mendiko lasterketetan lehiatzen. Gero eta jende gehiago dabil mendian korrika eta taldeak sortu diren lekuetan zer esanik ez! Irun aldean, adibidez, ia asteburuko egiten dituzte *korrikedadak* eta hogeit bat lagun batzen dira. Taldean elkartuta dabilzatenetik, gainera, korrikalariak eurak ere ezagunagoak dira. Are gehiago, nik esango nuke jende asko taldearen bultzadagatik iritsi dela iritsi den tokiraino, motibazioak beste edozein alorrean moduan kirolean ere asko esan nahi duelako errendimendua hobetzeko orduan.

Zeu izendatu zaituzte presidente eta Iñigo Lariz presidenteorde. Mendiko lasterketetan dabilzaten artean nekez egongo da ezagutzen ez zaituztenik. Arnu ona ematen du.

Ba ez pentsa nahia egindako kontu bat izan denik. Taldea sortzeko bost kideren izenak eskatzen zizkiguten, eta besterik gabe izendatu genituen karguak, arduerri erreparatu gabe. Talde bat gara, eta taldean lan egiten dugu. Beraz, sortze-papertan bost lagun izen-abizenak agertuko badira ere, gehiago gara Lizarpe mendi elkartearen inguruan gabilzanan eta ibiliko garenak.

Zuekin harremanetan jarri nahi duenak zer bide ditu?

Lizarpemk@gmail.com da gure posta elektronikoa eta Facebooken ere jarraitu gaitzake: LizarpeMK.

IRUNE BERASALUZE

ALOKABIDEKO ZUZENDARIA

**“Etxe hutsa
zabaltzeagatik irabazi
segurua jaso eta
premian dagoenari
lagunduko diozu”**



‘Ireki zure etxea. Irabazi segurua ziurtaturik’ kanpaina hasi du Alokabidek herriz herri, eta hilaren 21 eta 22an Elgoibarrrera etorriko dira. Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren baitako erakundea da Alokabide, eta alokairu soziala kudeatzen du. Une honetan, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, 11.200 bat etxe ditu Alokabidek alokairu soziale-rako, eta horietatik ia 5.000 jabe pribatuenak dira. Eskaera handia da, baina, eta etxe huts gehiago behar dituzte, Etxebiden izena emandakoei esleitzeko. Iruñe Berasaluze (Mendaro, 1968) Alokabideko zuzendariak eman ditu azalpenak.

Alokabideren Bizigune eta ASAP programak ez dira berriak, baina kalera irten zarete hauen berri ematera. Zer dela eta?

Ez dira berriak, ez, baina ikusita zenbat etxebizitza huts dauden hiru lurraldeetan, eta aldi berean, etxebizitza premian daudenak zenbat diren beharrezkoa iruditu zaigu bi programok indarberritzea eta herritarrak animatzea hutsik dituzten etxeak Gobernuari ematera.

Zenbat etxe huts daude hiru lurraldeetan?

80.000 bat etxe daude, baina denak ez daude kudeatzeko moduan. Alokairu sozialerako emateko moduan daudenak 40.000 bat dira.

‘Zabaltu zure etxea. Irabazi segurua’ leloa aukeratu duzue, baina denok entzun dugu noizbait etxea errentan jarri eta ezertarako balio ez duela laga dioten norbaiten kasua edota errenteroari zorra kobratu ezinda dabilenarena. Erreparoa ematen du oraindik?

Bai, eta horrek atzera botatzen ditu asko. Normala da, baina etxe huts hori alokairuan emateko beldurrez den horri esan nahi dioguna da etxea Jaurlaritzari uzten dionak irabazi segurua duela, batetik, alokairuagatik hilero jaso beharreko dirua bermatua izango duelako, eta bestetik, lagapen-kontratua amaitzen denean, Jaurlaritzari eman zionean bezalaxe jasoko duelako etxea.

Zer ezaugarri ditu Bizigunek?

Bederatzi hilabete baino gehiagoan hutsik dagoen etxebizitza bat daukan edonork hel diezaioke. Etxeak, jakina, baldintza batzuk bete behar

ditu: sukaldea eta komuna ekipatuta izan behar ditu, eta bertan duin bizi ahal izateko baldintzak bete behar ditu. Hori betetzen dela bermatzeko, etxebizitzaren ikuskapen teknikoak egiten dugu guk lehendabizi. Behin hori eginda, errenta hilero kobratuko duela bermatuko dio Jaurlaritzak etxe jabeari, baita maizterrak ordaintzen ez duenetan ere, eta gainera, lagapen-kontratua amaitutakoan, etxea jasotako moduan uzteko konpromisoa hartuko du Gobernuak, horretarako egin beharreko konponketak bere gain hartuz. Bizigune programari heltzen dionak gehienez 450 euro kobratuko ditu hilean, baina etxea Jaurlaritzari ematen dion unetik ez du ezerekin kezkatu beharrik izango, alokairuaren kudeaketa osoa Gobernuak bere gain hartuko duelako, azken batean etxea ematen duenak Gobernuarekin sinatuko duelako lagapen-kontratua, maizterrekin beharrean. Beraz, ez du maizter horrekin inolako harremanik izango, ezagutu ere ez du zertan egin. Lagapen-kontratuak, berriz, hiru urterakoak izaten dira, baina gu saiatzen gara sei urterakoak lotzen.

Nahi ez arren, errezelok eta abarrak beti izaten dira eta maizterra nor izango den jakin gabe etxea emate horrek atzera botako ditu bat baino gehiago. Ez duzu uste?

Bai, segurua, baina etxe-jabea egon daiteke lasai maizter horrek arazoren bat sortuko balu ere, ez delako bera izango erantzun beharko duena, Gobernu baizik. Ez ahaztu berak etxea Jaurlaritzari eman diola.

Kasurik txarrenetako batean jarrita, jo dezagun adibidez bizilagunei arazoak sortzen dizkiela maizterrak, Jauriaritzak hartuko du esku, Alokabiden baditugulako gizarte laguntzaileak ere.

Horiek denak entzunda zaila egiten da ulertzea gaur 80.000 etxe hutsek egotea.

Bai, baina gertatzen dena da etxearen truke hilean 450 euro jasotzea gutxi iruditzen zaiela askori, ikusten dutelako merkatu librean bikoitza ere jaso dezaketela. Zenbat arriskatzeko prest zauden da kontua. Daukanak egin behar du aukera, baina etxe bat itxita eduki edo hilero-hilero gutxienez 450 euro jaso... badago aldea. Etxe hutsa zabaltzearen truke, irabazi segurua jasoko duzu eta premian denari lagunduko diozu, gainera.

ASAP da zuen bigarren programa. Alokairu Segurua Arrazoizko Prezioan esan nahi dute siglek. Beharbada hori izan daiteke gehiago irabazi nahi dutenentzako irtenbidea?

Bai, baliabide ekonomiko handiagoa duten maizterrei zuzendutakoa da berez, baina kasu honetan ere etxe jabeak gehienez 650 euro jasoko ditu hilean. Bizigunerekin alderatuz, hemen, etxe jabeak maizterrekin sinatuko du zuzenean hitzarmena, baina Jauriaritzak aseguru batzuk kontratatzen ditu eta aseguru horrekin bermatzen da errenta hilero kobratuko dela, etxean egin beharreko konponketa guztiak egingo direla lagapen-kontratu sinatu zenean zegoen moduan uzteko eta erantzun zibila eta aholkularitza zerbitzua izango duela etxe-jabeak, behar izanez gero.

Bizilagunak arazoren bat eragingo balu zeinek erantzungo luke, baina?

Jauriaritzaren aseguruak, baina etxe jabeak eman beharko lioke parte aseguruari.

Alokairu sozialerako, 650 euroko errenta ez da gehiegitxo?

Arazoak izaten ditugu bai. Etxe jabeak erakartzea baino zailagoa zaigu Etxebiden izena emanda dauden eskatzaileen artean errenta hori ordaintzeko gai direnak topatzea.

Alokairu soziala eskatu nahi duenak zeintzuk baldintza bete behar ditu?

Gobernuaren etxeetan errentan sartzeko urtean gehienez 25.000 euroko diru-sarrerak izan behar dituzu, Bizigunen sartzeko 21.100 eurokoak eta ASAPen sartzeko, 39.000 eurokoak. ASAP programa sozialistek jarri zuten martxan, baina orain, Etxebideren orrian sartzeko denak bertan ikus ditzake ASAP programan eskaintzen zaizkion etxeak. Balizko maizter horrek, beraz, aukera dauka bere gustukuena aukeratu eta erretserba egiteko.

Bizigune da baliabide ekonomiko gutxien dutenentzako aukera. Hor ere maizterrek bere gustuko etxea aukeratzeko aukera dauka?

Ez. Ez du aukeraten. Bere beharrak aintzat hartzen dira etxea esleitzeko orduan hori bai, eta gero, maizter horrek gehienez bere diru-sarreraren %30a ordaintzen du errentan. Hortik lagapen-kontratuan zehaztu den kopurura arteko dirua Gobernuak ordaintzen dio etxe jabeari, beti ere 450 eurora arte. Oso programa garestia da guretzat, baina badakigu politika sozialak sekula ez duela dirurik eman.

Errealitatea zein da?

Lehen, Etxebiden izena ematen zuenak aukera zeukan etxea alokai-

ruan hartu edo erosi nahi zuen hautatzeko. Jende askok izena ematen zuen, baina inork ez zuen gero baja ematen, eta sekulako nahaspila geneukan. Orain, aukeratzeko eskatzen zaie: errentan hartu edo erosi, eta gertatu dena da etxea erosteko izena ematen dutenen kopuruak nabarmen egin duela behera eta etxea alokatu nahi dutenena ikaragarri hazi dela.

Ez zen ba etxea erosteko horren errotuta daukagun kultura aldatu delako izango, ala?

Ez. Gertatzen dena da Babes Ofizialeko Etxea erosteko aukera suertatu zaien askok ezin izan dutela erosi finantziarioa falta izan dutelako, eta ezinbestean atzera egin behar izan dutela. Aldiz, alokairua eskatzen dutenak gero eta gehiago dira. Derrigorrak eraman du jende asko alokairu soziala eskatzera, eta zoritxarrez, alokairuan etxe bat suertatu zaien bakarren batzuek ere ezetz esan dute ezin dutelako kopuru hori ordaindu. Alokairu eskatzaileen artean, Diru-sarreraren Berme Errenta jasotzen duten asko dauzkagu!

Laguntzez ari garela eta zer esanik ez alokairu sozialeko Gobernuaren etxeez, askotan entzuten dugu etorkinek erraztasunak dituzten kontua.

Datuek zer diote?

Eskatzaileen artean gehiengoa hemen bertakoak dira, baina bai, jakina, etorkinen kopurua ere handia da. Urtean gehienez 25.000 euroko

diru-sarrerara artekoak dituztenak sartzeko dira alokairu sozialeko zerrendetan, eta atera kontuak! Diru horrekin bizi behar duenak derrigor ibili behar du estu. Eta egoera horretan asko daude gurean. Laguntzen zaienei baldintzak betetzen dituztelako laguntzen zaie, eta gauza bat dago argi: baldintza horietan egotea inork ez du nahi.

Zenbat etxe huts beharko zenituzkete dagoen eskabideari erantzuteko?

Beharra handia da, baina guk geuk ere daukagun baliabideak dauzkagu, krisiak administrazioa ere jo duelako, eta programa hauek mantentzeak ere kostu handia

duelako. Nahi beste etxe lortuta ere ezingo genuke erantzun, baina nahiko genuke kanpaina honetan 400 bat lortzea.

Zeintzuk dira etxe hutsak dituztenek etxe horiek errentan ez uzteko ematen dizkizueten arazo nagusiak?

Trukean jasoko luketen errenta txikiagia dela eurentzat eta ez direla fio maizterrez. 'Badakigu Gobernuaren etxeetan zer motatako jendea dagoen', esaten dute. Topikoak, azken batean. Oso zabaldua dago diru-laguntzekin egindako iruzurrak etorkinek egiten dituzten ustea, eta hori dena gezurra da, alokairu sozialeko errentero guztiak arazoak sortzen dituzten ustea gezurra den bezala. Guk momentu honetan 11.200 maizter dauzkagu eta arazoak ematen dituztenak ez dira %2a iristen. Errentero gehienak finak dira. Diru justuarekin bizi dira, bai, eta halakotan badakizu zer gertatzen den: suertatzen zaizu betaurrekoak egin beharra eta etxe ekonomia hankaz gora jartzen da. Gertatzen dira halakoak, baina asko dira hilabete horretan ordaindu beharrekoaren zati bat hurrengoan ordainduko dutela esanez kezkatuta deitzen dituztenak.

Amoranteren kontzertua izango da gaur Kultur Etxeko sotoan

23:00etan hasiko da emanaldia



Sinuosek antolatuta, Amorantek kontzertua eskainiko du gaur gauean, Kultur Etxeko sotoan. Amorante Iban Urizar musikari elgoibartarraren bakarkako proiektua da. Aspaldiko koplak, flamenkoa, afrikako musika eta orokorrean tradizio anitzeko musika jorratzen du, eta folkaren ildotik abiatuta, esperimentaziorako tartea ere uzten du. Erraietatik ateratzen duena kantu bihurtzen saiatzen da Urizar. Gitarra, ahotsa, beatbox pixkat eta tronpetaren laguntzaz lantzen du bere kantutegia, tarteka beste talde batzuen kanten bertsioak eginez.

Zabalik dago Elgoibarko Izarraren santa eskean parte hartzeko izenemate epea



Urtero bezala, baseriz-baserri irtengo dira Elgoibarko Izarrako kideak otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera egunean, hain zuzen ere. Eguerdiko 14:30ean elkartuko dira Kalegoen plazan, eta bi taldetan banatuta, Elgoibarko baserri-auzoetan jardungo dute koplak kantari, 22:00ak aldera arte. Ondoren, Aiastiako elkartearen afalduko dute. Koruetan parte hartu nahi dutenek urtarillaren 30erako eman beharko dute izena, 943 741 626 (Imanol) telefonora deituta edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzita.

1994an berreskuratu zuen elkarteak baseriz-baserri kantuan eta eskean irteteko ohitura, eta baserritarrek atea zabaltzen dieten bitartean ohitura hori eutsi nahi diote.

'La del manojo de rosas' zartzueta gaur, Herriko Antzokian

Kultura Sailak *La del manojo de rosas* zartzueta antolatu du gaur gaueko. Pablo Sorozabal musikariaren eginiko obra da. 1934an estreinatu zuten, eta garai hartako Madrilaren giroa dago istorioa. Hiri txikia zen orduan Madril eta denek ezagutzen zuten elkar. El manojo de rosas izeneko lora-dendan Ascension izeneko neska lan egiten du, eta Joaquín eta Ricardo haren maitasuna bereganatzen saiatuko dira. Sarreak 10 euro balio ditu. Sarreak www.kutxabank.es helbidean erosi daitezke, eta saltzen ez direnak Herriko Antzokiko lehiatilan erosteko aukera egongo da. Emanaldia 20:30ean hasiko da, Herriko Antzokian.



Bihar izango da jaiotza mekanikoa ikusteko azken eguna

Abenduaren 19an jarri zuten martxan jaiotza mekanikoa, eta bihar itzaliko dute, hurrengo Eguberriaren arte. 2014an erreminta makinaren mendeurrena izan da Elgoibarraren, eta Elgojaitza taldekoek ere aintzat hartu dute gai hori jaiotza prestatzerakoan: berrikuntzen artean, tornugilea sartu dute. Oraindik jaiotza bisitatu ez duenak, beraz, bihar izango du azken aukera. Goizez 10:30etik 13:30era egongo da zabalik, eta arratsaldean, 17:30etik 20:30era.

Sendabelarrak izango da San Anton jaietako zigilu erakusketaren gaia

Biraka taldearen flash mob-arekin hasiko dira gaur San Anton jaietako ekitaldiak

Bihar izango da San Anton Eguna, eta horren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte astebururako. Gaur arratsaldean flash mob-a egingo dute Biraka dantza taldekoek, Kalegoen plazatik Maalaraino. Bihar, bestalde, San Anton jaien bueltan antolatzen duten zigilu erakusketa inauguratuko dute Altzolatarren Dorretxea filatelia elkartekoek. Aurten sendabelarrak izango da erakusketako gaia, Gabon Zahar feria egunean sendabelarrei buruzko postuak jartzen zituztenen omenez. 85 bilduma zigilu bildumak osatuko dute erakusketa. 12:00etan zabalduko dute erakusketa, eta hilaren 25era arte egongo da ikusgai.

Horrez gain, meza nagusia izango da 11:00etan San Bartolome parrokiari, eta umeentzako parkea ere jarriko dute Kalegoen plazan, goizez eta arratsaldez. 17:00etan, berriz, erraldoi eta buruhandien kalejira izango da. Emudafek, bestalde, kontzertua anto-



latu du: Musikeneko metal taldeak eskainiko du emanaldia, Herriko Antzokian. Domekarako Oliver magoaren ikuskizuna antolatu dute, eta etxeko txikiak eta hain txikiak ez direnak aho-zabalik utziko ditu. 16:30ean hasiko da saioa.

Gaztelekuko lagunek hainbat ekintza burutu dituzte Eguberrietako oporretan



Ekintzaz beteriko Eguberriak izan dituzte Gaztelekuan, eta ez dute aspertzeko aukerarik izan. Abenduaren 21ean Niala magoaren magia saioa izan zuten, eta gero, denek elkarrekin afaldu zuten gaztelekuan bertan. Hilaren 26an, berriz, Bilboko Lasergunera egin zuten irteera, eta arratsaldea Bilbon pasatu zuten. Azkenik, abenduaren 29tik 31ra Askizun egin zuten egonaldia.

Gaztelekuko arduradunek jakinarazi dute ekintza hauek guztiak gazteekin batera antolatu dituztela. Gaztelekuan asanbladak egiten dituzte gazteekin batera, eta guztien artean erabakitzen dituzte ekintzak. Eskerrak eman dizkiete asanbladetan parte hartu duten gazteei, eta era berean, gainerako gazteak gonbidatu dituzte asanbladan parte hartzera.

Manolo Escobar abeslariari buruzko musikala gaur zortzi, Herriko Antzokian

Manolo Escobarren omenez, *Mi carro lo tienes tú* musikala antolatu dute datorren barixakurako. Abeslariaren abesti ezagunenak abestuko dituzte, umorezko istorio batetan. Abeslariaren artean Natalia Mellado elgoibartarrak hartuko du parte, Vanesa Escobar (Manolo Escobarren alaba), Luis Muñoz eta Carlos de Luna abeslariarekin. Sarre-rak www.kutxa.net helbidean erosi daitezke 20 euroan. Soberan gertzen direnak lehiatilan erosteko aukera ere egongo da, 25 euroan.



Sanloko hamabi jokalarik Euskadiko selekzioarekin jokatu dute Espainiako Eskubaloi Txapelketa

Eguberrietako eskubaloi ekintzetan 50 neska-mutilek hartu dute parte

Infantil, kadete eta jubenil mailako Espainiako Eskubaloi Txapelketa jokatu zuten Castellon (Valentzia), urtarrilaren 1etik 7ra bitartean, eta jubenil mutilen taldean izan ezik, gainerako selekzio guztietan ordezkariak izan ditu Sanlok; hamabi jokalarik guztira: senior nesken taldeko Nora Kortaberria, kadete mailako June Loidi, Nagore Rodríguez, Amaia Rubio, Eneko Rubio, Alejandro Beraza, eta Aitor Kortazar, infantiletako Ane Kortaberria, Nerea Lizarraga, Iñigo Elustondo, Kimetz Bergaretxe, eta Jon Ortega. Castellon izan ez badira ere, senior mailako Euskadiko selekzio nagusiek ere jokatu dituzte partidak Eguberrietan eta horiekin aritu dira Lauko taldeko Oihane Gomez eta Alcorta Forging Group taldeko Imanol Garziandia jokalaria.

Bihar, bestalde, Sanloko senior taldeek



Olaizaga kiroldegian jokatuko dute, eta klubak herritarrei dei egin die partidak ikustera joateko. Mutilen taldeak 17:45ean jokatuko du, Nafarroako Beti Onak taldearen kontra. Neskek Zarauzko taldea izango dute aurrez-aurre, 19:30etik aurrera.

Sanlo Eskubaloi Eskolak Eguberrietan antolatutako ikastaro eta irteeretan 50 neska-mutilek hartu zuten parte. Besteak beste, eskubaloi munduko jokalarik eta entrenatzaileekin entrenatzeko aukera izan zuten.

Gaur gauean jokatuko dituzte San Anton pilota txapelketako finalak ikastolako frontoian



San Anton pilota txapelketa iritsi da amaierara, eta gaur gauean jokatuko dituzte finalak ikastolako frontoian, 22:00etatik aurrera. Promesetan Unanue eta Juaristi azkoitiarrek Hernandez eta Flores oiartzuarrak izango dituzte aurrez aurre. Nagusietan, berriz, Ugalde eta Aldapek osatutako bikoteak Larrañaga eta Murgiondoren kontra jokatuko du.

Lau astoren arteko desafioa izango da gaur gauean Sigmako probalekuan

Otsourtia (Elgoibar), Alegria (Bermeo), Txibilter (Azkoitia) eta Lobeneko (Gatika) lau astoren arteko dema izango da gaur gauean Sigmako probalekuan. Astoek 580 kiloko pisua duen 'Sigma harria'-rekin egin beharko dute lan, eta ordu erdian plaza gehien egin dituen astoak irabaziko du. 1.360 euro banatuko dituzte sarietan, eta irabazlearentzat mantak eta trofeoa ere izango dira. Ikuskizuna 21:30ean hasiko da, eta sarrerak 15 euro balio ditu.

Zartako Axier Agirre hirugarren, Euskadiko arku tiraketa txapelketan

Joan zen zapatuan Euskadiko arku tiraketa txapelketa jokatu zuten Lazkaon, eta Zarta taldeko Axier Agirre zumaiarrak hirugarren egin zuen. Txapelketa batean parte hartzen zuen estreinako aldia zuen, eta oso pozik amaitu zuen txapelketa. Sergio Fernandez elgoibartarrak laugarren egin zuen. Hilaren 25ean Ordizian jokatuko den basoko proban izango dira Zartako kideak.



Maite Maiora lehen euskalduna izan da Donostiako Nazioarteko krosean

Martin Hernandezek irabazi du lasterketa infantiletan

Donostiako Nazioarteko Krosa jokatu zuten domekan Lasarten, eta emakumezkoen kategorian Maite Maiora mendararra izan zen lehengo euskalduna. Maiorak 25:24 denboran bukatu zuen proba, eta sailkapen nagusian zazpigarrena izan zen. Mendian gora eta behera primeran moldatzen da, eta kros zirkuituetan ere gero eta erosoago aritzen dela erakutsi du korrikalari mendarorak.

Era berean, Martin Hernandez Mintxeta atletismo taldeko antxitxikiak ere erakustaldia eskaini zuen infantil mailako lasterketan eta lehen postuan gurutatu zuen helmugako marra, 13:38ko denborarekin.



Kirol instalazioen zozketa hilaren 20an egingo dute

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi du kiroldegiko squash kantxa edo frontoi txikia eta Ikastolako frontoia urte guztirako gordetzea nahi dutenen artean, ordutegien zozketa egingo dutela urtarrilaren 20an, 19:00etan, Olaizaga kiroldegian. Kirol Patronatuko bazkideek doan erabili ditzakete squash kantxa eta frontoi txikia.

Mugertza krosari buruzko argazki lehiaketa antolatu dute



Mintxeta atletismo taldeak Mugertza krosari buruzko argazki lehiaketa antolatu du, Tantaka tabernaren laguntzarekin. 16 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez, zuri-beltzean nahiz koloretan. Otsailaren 10erako bidali behar dira argazkiak, Elgoibarko 120 postakutxatilara. Antolatzaileek bi sari emango dituzte: sari nagusia eta herritarren saria. Sari nagusiaren barruan 200 euro jasoko ditu irabazleak, eta bigarren sailkatuak 100 euro. Herritarren saria Tantakako bezeroek emandako botoen bidez aukeratu dute, eta argazki irabazlearen jabeak 100 euro eskuratuko ditu. Argazki guztiakin erakusketa egingo dute Tantaka tabernan, otsailaren 12tik aurrera. Informazio gehiago www.mintxeta.com webgunean.

EMAITZAK

FUTBOLA

Zarautz 1 – Elgoibar 2 (Pref.)
Illauri 1 – Elgoibar 0 (Erreg.)
Billabona 0 – Elgoibar 6 (Jub.)
Elgoibar 0 – Zumaiako 1 (Kad. A)
Arrasate 4 – Elgoibar 4 (Lehen. inf.)
Elgoibar 9 – Behobia 0 (Inf. Txiki)
Elgoibar 7 – Anaitasuna 2 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 4 – Agoncillo 2 (2B)

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 27 – Uharte 23 (Sen. mut.)
Beristain Elg. 27 – Pulpo 23 (Jub. mut.)
Egia 28 – Pneumax Elg. 23 (Kad. neska.)
Bankoa Elg. 39 – Urola 10 (Kad. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 17

16:30 Elgoibar – Urkomendi (Erreg.)
11:30 Elgoibar – Burumendi (Lehen. inf.)

ESKUBALOIA (Kirodegian)

Zapatua, 17

10:00 San Roke Elg. – Aiala (Inf. neska.)
11:15 Ikus Elg. – Pulpo (Inf. neska.)
16:00 Deca Elg. – Bidasoa (Sen. mut.)
17:45 Alkorta Elg. – Beti Onak (Sen. mut.)
19:30 Lauko Elg. – Aiala Zarautz (Sen. neska.)

Domeka, 18

10:15 Sukia Elg. – Aloña Mendi (Aleb. mut.)
11:30 Murgil Elg. – Eibar B (Inf. mut.)

PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 16

21:00 Lagunak – Bergara (Jub.)

Domeka, 18

11:30 Lagunak – Real Sociedad (Pala. 1. maila. nag.)

Urregaraira irteera domekan, Morkaikorekin

Morkaikok Urregaraira irteera antolatu du domekarako, Herri Eskolako eta Ikastolako gurasoekin. Autoz joango dira Lekoitzekeo portura, eta handik Santa Eufemiako zelaira joango dira oinez. Atsedentxo bat hartu ondoren, Urregarai tontorrera igoko dira. Zortzi kilometroko ibilbidea izango da, 350 metroko desnibel positiboarekin. 9:30ean batuko dira Mintxetako aparkalekuan. Antolatzaileek esan dute ume bakoitza arduradun batekin joan behar dela.

LANA

ESKAERA

- Emakumea, lan bila. Interna, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. ☎ **626 914 904**
- Emakumea sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **636 882 838**
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, eta baita garbiketa lanak egiteko ere. ☎ **608 523 426**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, esperientzia handia daukat. ☎ **677 259 560**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **631 932 184**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia daukat. ☎ **606 354 982**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ **602 490 595**
- Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko, umeak edo adinekoak zaintzen. Orduka lan egiteko ere prest. ☎ **631 746 668**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko. ☎ **639 523 390**
- Emakumea lan bila. Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Gaez edo orduka lan egiteko prest. ☎ **631 417 995**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**

ESKAITZA

- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. ☎ **649 580 505 (Leire)**
- EGA azterketa prestatzeko klase partikularrak hartuko nituzke. ☎ **617 053 329**

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **608 523 426**
- Etxea alokairuan hartuko nuke Elgoibarren. ☎ **677 259 560**

BESTELAKOAK

- Lepokoa galdu nuen pasa den asteburuan Elgoibarren. Bihotz forma du, erdia zilar kolorekoa da eta beste erdia urre kolorekoa. Balio sentimental handia du. Konpentsazioa izango du lepokoa bueltatzeak. ☎ **616 816 826**


- Kyocera FS-C5100DN inpresorarentzako toner magenta eta horia salgai. Berriak, erabili gabeak. Bakoitzak 50 euro. ☎ **943 744 112**
- Canon laser inpresorarentzako EP-22 tonerra salgai 50 euroan. Berria, erabili gabe. Inpresora hauen-tzat balio du: LBP-250 / 350 / 800 / 810 / 1110 / 1110SE / 1120. ☎ **943 743 704**
- Kartera bat aurkitu genuen abenduaren 24an, Kalegoen plazan. Elgoibarko Izarran dago. ☎ **943 741 626**

OSPAKIZUNAK


- 1970ean jaiotakoen bazkaria, martxoaren 14an, Sigma jatetxean. 55 euro sartu behar dira, kontu zenbaki honetan. Bankoa: 0138 0020 1100 10693802. ☎ **607 477 405 / 663 694 896**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**





Duela hilabete batzuk nire gurasoek etxebizitza berria erosi zuten eta eraikitzaileak gainbalioen gaineko zerga ordaintzera behartzen zituen klausula gehitu zuen salerosketa-agirian eta eskrituran. Ikusita orain hori ordaintzea saltzaileari dagokiola, klausula hori ordaintzeari uko egin diezaioketek gurasoek ala eskrituran jasotakoak hori ordaintzera behartzen ditu?

Gainbalioen gaineko zerga ordaintzea saltzaileari dagokio berez, salbu bestela adostu bada. Azkeneko lege erreformatan, zeintzuek lege izaera duten, lege saltzaileak erosleari ezarri ezin diezazkion ordainketak zehazten dira, eta horietan ez da gainbalioen gaineko zergari buruzko ezer aipatzen. Legeak dio, hasiera batean behintzat, negoziagarria dela zerga hori zeinek ordaindu. Zuk diozunaren harira, baina, eta zeuk esandakotik, suposa dezakegu bi aldeek eskritura pribatu hori sinatu aurretik horren kopia bana izango zutela behar beste alditan irakurtzeko. Eskrituran jasoko dena notarioak ahoz gora irakurtzen du beti bien aurrean, eta gainera, sinatzaileek eurek ere han bertan irakurri eta notarioari behar beste galdera egiteko aukera izan dute izan ditzaketan zalantzak argitzeko. Agiri hori dutenean, beraz, dokumentu horretan jasotakoarekin ados daudela esaten ari dira bi aldeak, eta eskrituran jasotzeko baimena ematen.

AHOLKUA: Edozein dokumentu pribatu sinatu aurretik eska ezazu beti lege aholkularitza.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



• Zorionak, **Igor**, gure bigarren bitxitoari, abenduaren 30ean urtea egin zuelako. Etxeko eta bereziki Mikel eta Nerearen partez.



• Zorionak, **Jon**, urtarrilaren 5ean 8 urte egin zenituelako. Gurasoen, arreba Leire, aitona-amona eta osaba-izeben partez.



• Zorionak, **Ibon!** Gaur 6 urte! Muxu bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Ibon!** Muxu bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Julen!** Gure etxeko txikixak aste honetan urte bat egin du. Patxo potolo bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Axular**, Lau, lau, lau, sardiña bakalau. Muxu haundi haundi bat Aratzen eta etxeko guztien partez. Bihar ospatuko dogu!



• Zorionak, **Telmo**, 5 urte bete dituzu jada! Patxo handi bat familiako eta bereziki Klara, lan eta Adeiren partez.



• Zorionak, **Noa!** Igan-dean 3 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat familia osoaren partez eta oso ondo ospatu!



• Zorionak **Anderri**, gure etxeko inoizko errege opari onenari, bere bigarren urtebetetzean. Zure familiakoan partez.



• Zorionak, **Manex!** Hau da, hau! etxeko txikixak 7 urte! Patxo haundi bat danon partez.




• Zorionak, **Irene**, urtarrilaren 2an 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoan partez, guapa!



• Zorionak, **hirukote**, hilaren 15ean, 17an eta 30ean, 81, 11 eta 4 urte egingo dituzuelako. Muxu handi bana, etxekoan partez.




• Zorionak gure izar-txoari. 3 urte jaio zirela, **Maren**. Zoragarria zara, eta asko maite zaitugu. Etxekoak.



Oraindik ez zara bazkide? Bazkide izateko bigarren epea zabalik. Informazio gehiago, Ludotekan

Urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean ping-pong txapelketa gaztelekuan. Izen-emate epea urtarrilaren 28ra arte. Prezioa: 3€



IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HHO (2014an eta 2015ean Jalotakoak) otsailtik ekainera hasteko matrikula zabalik urtarrilaren 19tik 30era

elgoibar ikastola

Ikastola ezagutzeko aurkezpen bilera urtarrilaren 19an, 18:00etan





www.elgoibarikastola.eus
945 744441









Jolasa

16 barixakua

Kontzertua

23:00 'Amorantea'

Sinuosek antolatuta, Amorantearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.

17 zapatua

Jaiotza

17:00 Jaiotza mekanikoa

Gaur izango da jaiotza ikusteko azken eguna. Parrokiako lokalean.

23 barixakua

Musika

20:30 Manolo Escobarren musikala

Mi carro lo tienes tú musikala, Herriko Antzokian.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
16 Garitaonandia 17 Fernandez 18 Fernandez 19 Etxeberria 20 Yudego 21 Oruesagasti 22 Barrenetxea 23 Ibañez	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larraldietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

SAN ANTON JAIK

16 BARIXAKUA

18:30 Flash moba. Biraka dantza taldeak antolatuta, Kalegoen plazatik Maalara.

20:30 Zartzuela. *La del manojo de rosas*.

22:00 San Anton pilota txapelketako finala, Ikastolan.

17 ZAPATUA

11:00 Meza nagusia. Parrokiako abesbatzak hartuko du parte.

11:30 eta 16:30 Umeentzako parkea.

Kalegoen eta Aita Agirre plazetan.

12:00 Zigilu erakusketa. Hilaren 25era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

12:30 San Anton kontzertua. Musikeneko metal taldeak eskainiko du, Herriko Antzokian.

17:00 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak, herriko dultzaineroekin.

18 DOMEKA

16:30 Oliver magoa, herriko antzokian.



ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«**Magia a la luz
de la luna**»

17, zapatua: 19:00 / 22:15
(VOS)

18, domeka: 19:00

19, astelehena: 21:30



MARIBEL ARRIOLA ZUBIAURRE ETA ANGEL TEJERO TEJERO

2011ko abenduaren 29an eta 2014ko abenduaren 14an hil ziren

Bikote, orain elkarrekin zaudetela...

Gure ametsetan bizirik zaituztegu eta zuen irribarrea daramagu gure bihotzetan.

Etxekoak



ESKERTZA

BLANKI ASTARLOA



*Hain pertsona berezia,
hain emakume bakana...*

*Zure etxeko erregina,
zure sofako sultana;
bakardadeak beldurrik
ematen ez zion dama;
zure bizitzaren patroia,
andre eta jabe izana.*

*Barre algaraz, aldarriz,
zuzentzen zinen gugana.*

*Lasai aurkitu zaitugu
zure ohean etzana;
gauetz zu zaintzen egon da
aitxitxaren margolana.
Zure zain daukazu eta
lasai joan zaitez, amama.*

(Doinua: Habanera)


2015eko urtarrilaren 9an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ESKERTZA

JOSEFA ZULAIKA URANGA

*Izan zarenagatik,
erakutsi duzunagatik,
ez zaigutu inoiz ahaztuko*



2014eko abenduaren 30ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ESKERTZA

ANGEL TEJERO TEJERO

*Aitta maittia, triste utzi gaittu zu gure artetik joan izanak.
Zure alaittasuna eta bizitzeko grina goguan izango dittugu,
baita zugandik ikasitako eskola ona giza-bidian jartzeko.*

Eskerrik asko, muxuak eta hurrengora arte...



*2014ko abenduaren 14an hil zen,
77 urte zituela.*

Etxekoak

HURRENGO ERAIKUNTZA

UZTARRI ETXEAK

11 Etxebizitza berri Elgoibarren



Etxebizitza
erabilgarri eta
erosoak zentzuzko
prezioan

BIKUN ERAIKUNTZAK sustatutako 11
etxebizitza Uztarri eraikinean.

Ezaugarri bereziak:

- 90 eta 60 metro koadroko etxeak (2 eta 3 logelatakoak).
- Sukalde, jangela eta egongelarekin loturiko terraza.
- Aireztapen gurutzatua eta orientazio bikainarekin.
- Aparkalekua eta trastelekua (aukeran).
- Diseinu funtzionala.

Zure beharretara egokitutako etxeak dira,
kalitate goreneko materialekin egindakoak.

KOKAPEN ONENA



943 741 528

www.bikun-eraikuntzak.com

Kokapen hoberenean: herrigunetik 5 minutura oinez, Santa Klarakomentu ondoan, eta Jausoro plazatik gertu.